Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Zerbitzu Orokorrak
Servicios Generales del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte

Aholkularitza Teknikoaren eta Langileriaren Atala
Sección de Asesoría Técnica y Personal

SAILAREN TXOSTEN JURIDIKOA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU-DEKRETU BATEN PROIEKTUARI BURUZKOA, ZEINAREN BIDEZ, 2020. URTEKO EKITALDIRAKO ONARTZEN BAITIRA, BATETIK, BEKEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA, ARTE PLASTIKOEN ETA IKUSMEN-ARTEEN, ARTE DRAMATIKOAREN, MUSIKAREN ETA DANTZAREN MODALITATEETAN, ETA, BESTETIK, LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA BAKARRIK ARTE DRAMATIKOAREN, MUSIKAREN ETA DANTZAREN MODALITATEETAN.

INFORME JURÍDICO DEPARTAMENTAL SOBRE EL PROYECTO DE DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, POR EL QUE SE APRUEBAN LAS BASES REGULADORAS Y LA CONVOCATORIA DE BECAS EN LAS MODALIDADES DE ARTES PLÁSTICAS Y VISUALES, ARTE DRAMÁTICO, MÚSICA, Y DANZA Y AYUDAS ÚNICAMENTE EN LAS MODALIDADES DE ARTE DRAMÁTICO, MÚSICA, Y DANZA PARA EL EJERCICIO 2020.

Txosten hau Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 14.1 artikuluan xedatutakoaren babesean ematen da (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

El presente informe se emite al amparo de lo dispuesto en el artículo 14.1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Bertan ezarritakoa betez, honako hau ematen da:

En su cumplimiento, quien suscribe tiene el honor de emitir el siguiente

TXOSTENA

INFORME

Foru-dekretuaren proiektu hau 2/2017 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian jasotako salbuespen berezien artean dago, eta bertan ezartzen da ez direla egin beharko aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea eta entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea diru-laguntzen programen oinarriak eta deialdiak onartzen dituzten xedapen orokorren kasuan, baldin eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen

El presente Proyecto de Decreto Foral se encuentra entre las exenciones específicas recogidas en la disposición adicional segunda del Decreto Foral 2/2017, que declara exentas de los trámites de consulta pública previa y audiencia e información pública, entre otras, las disposiciones de carácter general que aprueben las bases y las convocatorias de programas de subvenciones, cuyo contenido sea idéntico o no modifique substancialmente el contenido

Elektronikoki sinatutako dokumentua. X66R-QU7G-JR19-LKOA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) X66R-QU7G-JR19-LKOA en www.ebizkaia.eus.

2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea onartu aurreko ekitaldietan xede berarekin onartutako oinarrien eta deialdien eduki bera badute edo eduki horretan funtsezko aldaketarik egiten ez badute, urteetan errepikatu den deialdi bat baita.

de las bases y convocatorias que hubieran sido aprobadas con el mismo objeto en ejercicios anteriores a la entrada en vigor de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, al tratarse de una convocatoria reiterada en el tiempo.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren urriaren 21eko 2999/2019 Foru Aginduaren bidez, foru dekretu hori egiteko prozedura hastea erabaki da, 2/2017 Foru Dekretuaren 11.2 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Mediante orden foral 2999/2019, de 21 de octubre, de la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, se ha acordado la incoación del procedimiento de elaboración del referido decreto foral, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 11.2 del Decreto Foral 2/2017.

Dekretu horren 14.3 artikuluan xedatutakoari dagokionez eta bertan ezarritakoa betez, honako hau adierazten da:

a) Arau-proposamen horrek urteetan egiaztatu den beharrizan objektibo bati erantzuten dio: arteen eta kulturaren arloan sormeneko interpretazioa-teknikak zabaltzea sustatzea.

b) Euskal Autonomi Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean xedatutakoarekin bat, lurralde historikoei eskumen esklusiboa dagokie, besteak beste, arlo honetan: lurralde historikoaren titulartasunekoak diren eta Arte Ederrekin eta Artisautzarekin zerikusia duten artxibo, biblioteka, museo eta erakundeen arloan.

   Eskumen hori betearazteko, Bizkaiko Foru Aldundiak kultura-diziplina guztietan bultzatu, sustatu eta hedatzeko helburua duten jardute-lerro batzuk dauzka abian.

Respecto a lo dispuesto en el artículo 14.3 del mismo, y dando cumplimiento a lo que en él se establece, se hace constar:

a) Que la propuesta normativa obedece a una necesidad objetiva constatada en el tiempo de promover la difusión de técnicas interpretativas de creación en el ámbito de las artes y de la cultura.

b) Que de conformidad con lo dispuesto en la Ley vasca 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, corresponde a estos últimos competencia exclusiva, entre otras, en materia de Archivos, Bibliotecas, Museos e Instituciones relacionadas con las Bellas Artes y Artesanía de titularidad del Territorio Histórico.

   Que en aras a hacer efectiva dicha competencia, la Diputación Foral de Bizkaia tiene en marcha diversas líneas de actuación, tendentes al fomento, promoción y difusión de la

Elektronikoki sinatutako dokumentua. X66R-QU7G-JR19-LKOA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) X66R-QU7G-JR19-LKOA en www.ebizkaia.eus.

Horien bidez, Arte Ederren arloko sormen eta ikerketa artistikoak eta ikerketa horren hedapena sustatu nahi dira. Hala, deialdi honen lege esparrua zehaztuta geratzen da, 2020ko ekitaldian arte plastikoen eta ikusmen-arteen, arte dramatikoaren, musikaren eta dantzaren modalitateetan emango diren bekei dagokienez, eta bakarrik arte dramatikoaren, musikaren eta dantzaren modalitateetan emango diren laguntzei dagokienez.

cultura en sus distintas disciplinas, a través de las cuales y en lo que a las Bellas Artes respecta, trata de estimular la creación e investigación artística y su posterior divulgación, quedando así definido el marco legal de la presente convocatoria de becas en las modalidades de Artes Plásticas y Visuales, Arte Dramático, Música y Danza y Ayudas únicamente en las modalidades de Arte Dramático, Música y Danza, en al ámbito cultural para el ejercicio 2020.

c) Foru dekretuaren proiektu hau idaztean kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko uztailaren 4ko erabakian xedatutakoa; foru erabaki horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko araugintza-teknikari buruzko gidalerroak onesten dira.

c) Que en la redacción del presente Proyecto de decreto foral se ha atendido a lo dispuesto en el Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia, de 4 de julio de 2017, por el que se aprueban las Directrices de Técnica Normativa de la Diputación Foral de Bizkaia.

d) 46200, 334104, 0405 aurrekontuko partidan, 2007/0213 proiektuan, behar besteko aurrekontuko diru-izendapena dago 2020ko ekitaldian aurre egiteko deialdi honek dakarren gastuari. Gastua 275.000,00 euro izango da, 2020ko ekitaldira begira onetsi den Diru-laguntzen Plan Estrategikoan jasota geratuko den bezala (plan hori Euskara eta Kulturako foru diputatuaren urriaren 30eko 2841/2018 Foru Aginduaren bidez 2019. urterako onesten denaren jarraipena izango da).

d) Que en la partida presupuestaria 46200, 334104, 0405, proyecto 2007/0213 está prevista para el ejercicio 2020 la consignación presupuestaria para hacer frente al gasto que supone esta convocatoria y que se cifra en 275.000,00€, tal y como quedará reflejado en el Plan Estratégico de Subvenciones que se aprobará de cara a 2020, que en este apartado será continuidad del aprobado por orden foral 2841/2018, de 30 de octubre, de la diputada foral de Euskera y Cultura para el año 2019 y que recoge esta subvención.

Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren (2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsi zen) 56.3 artikuluan

Que de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 56.3 del texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, aprobado por Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de

Elektronikoki sinatutako dokumentua. X66R-QU7G-JR19-LKOA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) X66R-QU7G-JR19-LKOA en www.ebizkaia.eus.

ezarritakoaren arabera, txosten honen xede den foru-dekretuaren babesean emaniko diru-laguntzak baliodun izateko baldintza bat bete beharko da: dagokion ekitaldian, foru-dekretutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izatea. Halakorik ez bada, balio gabe geratuko dira diru-laguntza horiek.

Era berean, arauketa horrek ez du ekarriko halako diru-laguntzak kudeatzeko baliabide material eta giza baliabide gehiago beharko denik deialdia kudeatzen duen Kultur Ekintzako Zerbitzuan egun daudenak baino. Era berean, dekretu honen idazketan genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat eginez. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru-dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita.

Horrez gainera, arau-ekimen hau 2019ko Urteko Arau Planean sartuta dago.

Eta hori guztia hala da, aintzat hartu gabe zer xedatzen den halakoak emateko eskumena duten administrazio-unitateek,

diciembre, la validez del otorgamiento de las subvenciones concedidas al amparo del decreto foral objeto del presente informe, queda sometida a la condición suspensiva de la existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del mismo en el ejercicio correspondiente.

Así mismo, que la referida regulación no implica en su gestión la necesidad de contar con nuevos recursos materiales ni humanos con relación a los ya existentes en el Servicio de Acción Cultural, gestor de la convocatoria. Igualmente, en su redacción se ha incorporado la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Igualmente, esta iniciativa normativa se encuentra recogida en el Plan Anual Normativo de 2019.

Todo ello sin perjuicio de lo que dispongan los informes de evaluación de impacto de género y control económico de las unidades

Elektronikoki sinatutako dokumentua. X66R-QU7G-JR19-LKOA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) X66R-QU7G-JR19-LKOA en www.ebizkaia.eus.

2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 14.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, genero-eraginaren ebaluazioari eta kontrol ekonomikoari buruz emandako txostenetan.

Eta horri buruzko txostena egiten da, dagozkion ondorioak izan ditzan.

administrativas competentes para emitirlos conforme a la estructura orgánica de la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.5 del Decreto Foral 2/2017, de 17 de enero.

Lo que informo a los efectos oportunos.

Sin./Fdo.: OLATZ UNZURRUNZAGA MURO - 2019-10-21
KULTURAKO AHOLKULARITZA TEKNIKO ETA LANGILERIAREN ATAL.BURU
JEFE/A SECCIÓN DE ASESORÍA TÉCNICA Y PERSONAL DE CULTURA

Sin./Fdo.: ASIER HAZA DEL CERRO - 2019-10-21
EUSKARA ETA KULTURAKO ZERBITZU OROKORREN ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE SERVICIOS GENERALES DE EUSKERA Y CULTURA

Elektronikoki sinatutako dokumentua. X66R-QU7G-JR19-LKOA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) X66R-QU7G-JR19-LKOA en www.ebizkaia.eus.